

Su-etenak giroa hobetu du baina bake prozesuak ez du inor ase

# Gerrarik ez behintzat

**I**par Irlandako herritarrak hobeto bizi dira su-etenarekin. Indarkeriaren beldurrik gabe eta soldaduen etengabeko kontrolrik gabe lasaiagoa eta erosoagoa da bizimodua. Orain arte oso aurrerapauso gutxi eman dituen *prozesu politikoarekin oso kezkatuta daude, ordea, irlandar asko; eta oso haserre, beste asko.*

-Shankillera? Ez, ez. Zoaz alboko konpainiara.

Alboko taxi konpainia katolikora jo, eta han:

-Shankillera!?

-Bai, Shankillera.

Bulegokoak taxistari begiratu, taxistak bulegoakoi, biek niri, eta azkenean, taxi gidariak: «Goazen».

-Ez gara sarri joaten, Shankillera -esan dit gidariak, harako bidean.

-Niretzat ere ez da ohikoa. Shankillera eramateko eskatzen dizueten guztiak eramaten al dituzue bertara?

-Ez, ez, gizonezkoak sekula ez. Zu atzerritarra zarelako eramango zaitut.

-Eta emakumezkoak bai?

-Paramilitar lealisten artean

ez dago ia emakumezkorik.

IRAREN eta talde paramilitar lealisten su-etenek erabat aldatu dute Belfasteko giroa eta belfastarren bizimodua, baina su-etena baino lehenagoko kezkak eta beldurrak ez dituzte gainditu. Urte asko beharko dituzte gainditzeko. Su-etena baino lehen, atzerritarrak izanda ere aukerarik ez genuke izango taxi katoliko batean -taxiak ere katolikoak eta protestanteak dira Belfasten-Shankillera joateko. Gaur egun ez da arriskurik sumatzen, ez Shankill protestantean ezta Falls katolikoan ere, 26 urteko gatazkan istilurik gogorrenen lekuko izan diren bi auzoetan.

## Bi auzo, bi mundu

BELFASTEKO auzo protestante pobreen eta gatazka-tsuenak biltzen dituen errepidea luzea da Shankill. Bandera britainiarrak ikus daitezke nonahi eta preso politiko lealisten askatasuna eskatzen duten mural handiak eta kartel txikiak bazter guztietan. Bertako bizilagunen erdia baino gehiago langabezia daude, eta bertan dute jatorria talde paramilitar lealistetako kide askok. Bi talde armatu protestante nagusien beso politiko diren alderdiek, UDPk eta PUPek, Shankillen dituzte egoitzak.

Sinn Feine Falls errepidean du Belfasteko egoitza nagusia. Falls errepidea Belfasteko auzo katoliko gehienen bizkarrezurra da. Langabezia tasa Shankill-koa baino altuagoa da auzo katoliko hauetan. Auzorik pobreenetan, Gerry Adam- sen Ballymurphy auzoan kasu, %70 ingurukoa da langabezia tasa. Arazo sozial eta ekonomiko antzekoak dituzten arren, Fallsen bes-



telako mural eta banderak ikusten dira: bandera irlandarrak baino ez, eta muraletan britainiarren kanporatzea eskatzen da. Shankillen bezala, presoena askatasuna eskatzen duten hainbat mural daude Fallsen, baino preso errepublikarrei buruz ari dira.

Fallsetik Shankillera bost minututan joan zaitezke oinez. Su-etenaren aurretik beti itxia zegoen hesia zabalik dago orain, baina ia inor ez da alde batetik bestera pasatzen. «Nire etxetik hamabost minutura dago Shankill, baina ez naiz sekula bertan izan. Su-etenaren aurretik zorakeria litzateke bertara joatea, tirokatuta hiltzeko arriskua bainuen, katoliko izateagatik. Gaur egun, ez daukat bertara joateko ez gogorik ez



«Askatu gerra-presu guztiak», zioten haurrok Belfast Mendebaldeko jaietako agerraldian. (A: Imanol Murua Uria).

amazoirik. Colonek hogei-  
ta hamar urte ditu, eta Fal-  
sen bizi izan da beti. Heli-  
kopteroen zaratak eta fo-  
loek girotu diote gaua sa-  
nitan. Lehen ezagutzen ez  
zuten zenbait leku ezagu-  
zuten ari da orain, su-etenari  
erret. *«Lehen gure auzoko  
akirik ez ziren bertatik ate-  
nara ausartzen; edozein  
akik eramaten ez zai-  
n arren, lehen baino  
akik geiago mugitzen  
ziren.»*

*«Zertara joango naiz  
Shankillera? Shankillen  
akirik dezakedan guztia  
akirik badut, erantzun dit  
akirik, Shankillera joango  
akirik litzatekeen galdegin  
akirik. Fallsen bizi da  
akirik ere, lealitek atentatu  
akirik egin dituzten guru-*

tzebidean: azken lau urteot-  
an gurutzebide horretako  
ilepaindegiko nagusia, bi  
dendari eta beste pertsona  
bat hil dituzte lealitek, ha-  
rakina hiltzen saiatu dira eta  
bertako tabernara granada  
bat bota zuten. Lealitek  
euren auzora ihesbide erra-  
za dutelako izan dira hain-  
beste atentatu gurutzebide  
horretan. *«Lehen taberne-  
tara joaten naiz, lehen  
lekuetan egiten ditut eroske-  
tak... bizimodua ez dut al-  
datu, baina su-etenarekin  
giroa aldatu da erabat: le-  
hen etxeko atean bi egur*

*bandi jartzen nituen, lea-  
listak etortzen baziren ere,  
eta orain gauden tabernan  
sartzeko miatu egingo gin-  
tuzketen atean.»* Fallseko  
taberna guztietako ate eta  
leihoak burdinsarez estalita  
daude, atarrietan kamerak  
dituzte eta, su-etenaren au-  
rretik, sartzeko txirrina jo  
beharra zegoen. Orain,  
ateak zabalik daude, eta ka-  
merak itzalita.

### Hurrengo urratsa nork eman

KENNY McClintonek, bizi-  
tza guztian egin duen mo-

## Su-etenaren aurretik beti itxia zegoen hesia zabalik dago orain, baina inor gutxi joaten da Fallsetik Shankillera

duan, arazo politikoekin  
kezkatuta segitzen du su-  
etenaren garaian ere.  
McClinton, ur berorik ez  
zuen Shankilleko etxe ba-  
tean jaioa, oso gazterik egin  
zen UFF-UDA talde parami-  
litarreko kide, erakundeko  
arduraduna izan zen Shan-  
killen eta, bi katoliko hil-  
tzeagatik -berak aitortua-  
betiko kartzela zigorra ezarri  
zioten. 16 urte kartzelan  
egin zituen eta UDP alderdi  
lealitateko militantea da  
orain. *«Errepublikarrek,  
IRAK, euren bizkuntza bai-  
no ulertzen ez zutela uste  
izan nuelako sartu nintzen  
talde paramilitarretan;  
izua sortzen zutenak izu-  
tzea zen helburua. Orain,  
bide politikoetan sinesten  
dut. Prozesu politikoan par-  
te hartu beharra dugu  
unionistok, baina orain ar-  
te guk baino ez ditugu egin  
kontzertsioak. Errepublika-  
rren txanda da orain, IRA-  
ren txanda.»*

Jim Kellyk ez du uste  
errepublikarren txanda de-  
nik, Londresen txanda bai-  
zik. Sean semea espetxean  
du 1988. urtetik, betiko kar-  
tzela zigorrarekin. 1988. ur-  
teko martxoan bi soldadu  
britainiar hileta katoliko  
baten erdira autoz sartu zi-  
renean, hiletan zeudenek,  
eraso lealista zelakoan, ji-  
poitu egin zituzten bi solda-  
duak -telebistak jipoia-  
ren irudiak eman zituen-, eta  
IRAK hil egin zituen gero.  
Jipoian parte hartzeagatik  
-ez hilketan- betiko kartzela  
duten hiru gazteetako bat da  
Sean Kelly, eta bere kasua bi  
urte barru berrikustea onar-  
tu berri du Justizia adminis-  
trazioak. Jim Kellyrentzat,  
su-etenaren berri izatea eta  
kartzelatik ateak zabalik  
ikustea bat izan zen: *«Bake  
prozesu bonek nire semea*



Orangisten desfile bat Belfastko auzo katoliko bat zeharkatzen, Poliziaren babespean. (A: Imanol Murua Uria).

*etxera ekartzea zen nire esperantza, baina Londreseko oso jokaera gogorra izan du presoekin. Lee Clegg soldadu britainiarra baino ez du askatu. Erabaki horrek ez nau barritu, baina mindu bai.*

Lee Clegg paraxutistak betiko kartzela zigorra zuen Belfasten 17 urteko neska bat hiltzeagatik, eta giltzapean hiru urte baino egin ez zituen arren, uztailearen 4an askatu zuten Patrick Mayhew Ipar Irlandarako Estatu idazkariaren sinadura zerman aginduari esker. Lee Clegg askatu ondorengo istiluak azken urteotako gogorrenak izan zirela diote Fallseko bizilagunek. Bi egunez suzko barrikadez josiak egon ziren Falls eta beste hainbat auzo katoliko,

eta Poliziaren eta Armadaren egoitzetara molotov koktelak jaurti zituzten aspaldiko partez.

Tomek zuzenean parte hartu zuen protesta horietan, eta mugimendu errepublikarrak antolatzen dituen ekitaldi gehienetara joaten da. Kaleko militante errepublikarra da, militante gogorra; Lee Clegg askatu zuten egunean hitz egin genuen berarekin, eta ordurako etorkizunik ez zion ikusten bake prozesuari. *«Iraun su-etenak? Zergatik iraungo du? Hainbeste bilabete pasatu dira eta ez da ezer gertatu. Gaur ikusi duzu jendea zein baserre dagoen. Zerk pentsarazten dizu su-etena ez dela hautsiko? IRAk eman zuen lehenengo pausoa, eta Erresuma Ba-*

*tuko Gobernuari esan zion: orain zuen txanda da. Eta ez du txanda hartu.*

### Orangistek bereari utsi

UNE txarrak pasatu zituen su-etenak uztaileko lehen hamabostaldian: Clegg soldadua inguruko istiluak aurrea, uztailearen 12ko jai orangistaren inguruko gorabeherak gero. Orden Orangistaren helburu nagusia protestanteen defentsa da, eta bere jai egunean katolikoek aurkako gerretan izandako garaipenak ospatzen dituzte, desfile militar ikusgarrietan. Katolikoek, desfileak euren auzoetatik pasatzea probokazioa dela iritzita, aurre egiten hasi dira aurtan. Tentsio une larriak bizi izan ziren aurreko egunetan eta egunean bertan, baina azkenean, uztailearen 12an Belfastko orangista guztiak Edenderryko zelaietan bildu ziren, eta bake prozesua arriskuan jar zezakeen enfrentamendu larri-

rik ez zen gertatu.

William McRea artzain protestantea zuzendu zitzaizen Edenderry bildutako 40.000 orangistei, «Belfasteko orangistek EZ diogu», zioen pankarta handiaren atzetik. *«Britainiar irauteko borrokan beti bezain gogor segitzeko determinazioa dugu. Irlanda Batuaren iradokizun hutsa baztertzeko dugu, ez gara sekula norabide horretan joango. Major-Bruton agiria onartzeari uko egiten diogu, unionistoi egindako traxioa baita. Nik errespetatzen dut Errepublika irlandarreko gure auzoek euren gobernu izateko duten eskubidea. Baina era berean, britainiar izateko eskubidea errespetatu diezagutela exigitzen diet beraiei!».*

Zaila dirudi gizarte zatitu honen arazo politikoei irtenbidea antzematea, baina bidearen zati bat egin dute behintzat. Askoz ere zailagoa dirudi, hala ere, konponbide politikoa lortuta ere, elkarrekin baino elkarren kontra bizi diren bi komunitateak eguneroko bizimoduan bat egitea. Leantiak, duela bi urte lealisten bere ahizpa hil zutenetik, ezinezkoa dela uste du. *«Bakea lortzea eta iraunkorra izatea espero dut, edo nabi dut behintzat. Baina bi komunitateak elkarrekin bizitzea, hori ez da inoiz gertatuko. Gauza gehiegi gertatu dira herri honetan. Denok dugu, alde honetan, lealisten eraso egindako senide edo lagunen bat. Eta beraietako askok ere IRAk eraso egindako norbait izango dute. Ezinezkoa zaigu elkarrekin konfiantzan bizitzea.*

IMANOL MURUA URIA

## Desfile orangistek auzo katolikoak zeharkatzea probokazioa dela iritzita, aurre egiten hasi dira aurtan katolikoak